

## KOSTUEN EGITURA

Gure proiektuak hainbat kostu izango ditu, finko zein aldakorrak. Kostu finkoak, alokatuko dugun fabrika gure proiektua ekoizteko, gure denda fisikoa, alokatua ere izango dena eta gure enpresan eta proiektuan lan egiten duten pertsonen soldatak izango dira. Hasieran pertsona nahikoak kontratatuko ditugu lanerako, baino ez gehiegi. Web orri bat eta aplikazio bat egiteak ere gastu bat eskatuko digu, eta hori dena kontrolatzen egongo den informatikoaren soldatak ere.

Gure produktuaren salmenten arabera erabakiko dugu gure enpresaren pertsona kopurua, denek soldata berdina edukiz, hasieran eta bukaeran.

Kostu aldakorrak, gure produktuarentzat beharko diren materialak, ekoizten denaren arabera izango baita. Gehiago ekoizten bada, materialetan gastu handiagoa izango dugu, eta gutxiago ekoizten bada, gastuak murriztu egingo dira.

Hasieran, gure proiektuak funtziona dezan inbertsio bat egiteko beharra dugu. Horretarako, diru-laguntza eskatuko dugu bankuan. Ez dugu inbertsio oso handia ere egingo, hau gure produktuan limitatuko da.